

**ELAREN IRITZIA PENTSIONEN ERREFORMARAKO
LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZ**

2011ko otsailaren 24a

Espainiako Gobernuak pentsioen erreformarako lege-aurreproiektua onartu eta berarekin batera doan Txosten Ekonomika aurkeztu du.

Aurreproiektuko testuarekin lege batera eramaten dute Itun Sozial eta Ekonomikoa. Dokumentu honetan aurreproiektuko puntu nagusiak laburbilduko ditugu; aurrez ezagunak izanagatik, aurreproiektuak ñabardura batzuk egiteko aukera ematen du. Aipatuko ditugu, halaber, pentsioen erreformak Zapateroren gobernuaren arabera izango dituen eragin ekonomikoak.

I- NEURRIEN LABURPENA

Aurreproiektuan jasotako erabakirik garrantzitsuenak honakoak dira:

Erretiro-pentsioa

- Erretiratze adina 65 urtetik 67ra atzeratzea. Salbuetsita daude 65 urterekin 38 urte eta erditik gora kotizatu duenak; hauek 65 urterekin erretiratuko dira.
- Pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko orain arteko 15 urteen orde 25 urte hartuko dira aintzat.
- Pentsioaren %100 jasotzeko eskubidea izateko orain arte 35 urtez kotizatzea eskatzen bazen, aurrerantzean 37 urteko epea izango da beharrezko.
- Pentsioa murriztu egingo da 15 eta 37 urte bitartean kotizatu dutenentzat, kotizatutako urte bakoitzari dagokion oinarri arautzailearen portzentajea aldatu egin baita.
- Kotizatzerakoan izandako hutsarteak zenbatzeko sistema aldatu egin da, erretiro aurreko azken urteetan kotizatu gabeko tarte luzeagoak dituztenen kalterako.

Erretiro aurreratua

Erretiro aurreratuari buruz aldaketa sakonak izango dira. Erreformarekin, bi bidetatik iritsi ahal izango da erretiro era honetara, betiere baldintza jakin batzuk betez gero.

Kasu guztietan gutxienik 33 urtez kotizatu izana derrigorrezkoa izango da (orain arte baino 3 urte gehiago). Eta kasu guztietarako urteko %7,5eko koefiziente murrizgarriak ezartzen dira (%1,875 hiruhileko bakoitzeko); honek erretiro aurreratua orain arte baino areago zigortzen du.

Erretiro aurreraturako bi bide izango dira:

1. Lehena, enpresaren krisi egoera edo itxiera, 61 urtetik gora (koefiziente murrizgarriak erretiratzeko adinarekiko ezarriko dira, oro har 67 urte alegia). Egungo egoeraren aldean erretiro aurreratua hartzeko aukera asko eragozten da, krisizat honako kasuak definitzen baitira:

- Agintaritza laboralak baimendutako kaleratze kolektiboa, arrazoi ekonomikoen ondorioz denean, Langileen Estatutuko 51. artikulua araberara.
- Arrazoi ekonomikoen ondorio den kaleratze objektiboa, Langileen Estatutuko 52.c) artikulua araberara (honek urteko 20 eguneko kalteordaina ezartzen du, gehienez 12 hilabete).
- Ebazpen judizialaren ondorioz gertatutako kontratu-amaiera, Konkurtso Legearen 64. artikulua araberara.
- Enpresaburuaren heriotza, erretiroa edo ezintasuna, edota kontratatzailearen pertsonalitate juridikoa desagertzea.
- Lan-kontratuaren amaiera ezinbestean gertatzen denean.

2. Bigarren bidea borondatezko erretiro aurreratua da, 63 urtetik aurrera. Haatik, kasu honetan baldintza berri bat ezarri dute: jasoko den pentsioa gutxieneko pentsioaren %125 baino handiagoa izatea. Hots, aukera hau ukatu egiten zaie pentsio txikiagoa lortuko luketeenei, errenta apalenak dituztenei, alegia.

Erretiro aurreratuan beste aldageta bat ere sartu dute. Koefiziente murrizgarriak oinarri arautzaileari aplikatzen zaizkio. Aurrerantzean, gehienezko pentsiotik gorako oinarria dutenei koefiziente horiek ez zaizkie oinarri arautzailean aplikatuko, gehienezko pentsioaren zenbatekoan baizik, eta hau txikiagoa da. Honela pentsioa murriztu egiten zaie.

Erretiro partziala eta errelebo-kontratua

Enpresek ordaindu beharko dituzte gizarte-kotizazioak, bai erreleboa hartzen duen langilearenak, zein erreleboa ematen duenarenak. Hau mailaka ezarriko da. Beraz, erretiro partziala garestitu egingo da, bere erabilpena murrizteko asmoz.

Gutxieneko pentsioaz peko erretiroarentzako osagarriak

Orain arte gutxieneko pentsiotik behera zeuden kotizaziopeko pentsioek osagarri bat jasotzeko eskubidea zuten, gutxieneko pentsio zenbatekoraino iristeko. Alabaina, aurreproiektuak gehienezko zenbateko bat ezartzen du osagarri hauetarako (kotizazio gabeko pentsioaren adinekoa).

Honela, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera pentsio bat izango duten batzuri ukatu egingo diete pentsio minimoaren mailaraino osatzeko aukera. Kotizaziopeko pentsioak gutxieneko pentsioen azpitik geratuko dira.

Ugazaben mutualitateak

Aurreproiektuak gobernuaren borondatea islatzen du honako puntuei dagokienez:

- Laneko istripu eta gaixotasun profesionaletara bideratzen diren enpresen gizarte-kotizazioak murriztea.

- 15 egunetik beherako bajak laburtzeko neurriak. Hots, lehentasuna ematen zaio enpresen kostua gutxitzeari, langileen osasunaren kalterako.

Iraunkortasun faktorea

‘Gizarte-Segurantza sistemaren Iraunkortasun Faktorea’ izenarekin, aurreproiektuak Itun Sozial eta Ekonomikoan (ISE) aipatutako puntu bat jaso du, pentsioetan etorkizuneko murrizketak egiteko prozedura automatiko bat ezartze aldera. Horrenbestez, testuak hau dio: “aurrerantzean ere sistemara egindako ekarpenak eta beregandik espero diren ordainak proportzionalak izan daitezten, eta hura iraunkor izango dela ziurtatze aldera, 2027tik aurrera sistemaren parametro nagusiak berrikusi egingo dira, 2027an 67 urte dutenen bizi-itxaropena eta aldian-aldian datu hau berrikusten den unearekiko gerta litezkeen aldaketen arabera. Berrikuspen hauek bost urtean behin egingo dira, horretarako erakunde ofizialen aurreikuspenak erabiliko direlarik”.

Beraz, 2027tik aurrera aurreikuspen ofizialek esaten badute bizi-itxaropena luzatu egingo dela (eta hau esatea aurreikuspenak egiten dituztenen esku dago) berehala erretiro adina atzeratu eta gastua murrizteko beste erabaki batzuk hartu beharko dira.

II- TXOSTEN EKONOMIKOA

Pentsioen erreformako Txosten Ekonomikoak lege-aurreproiektuan jasotako puntu bakoitzak izango duen eragin ekonomikoa aipatu beharko luke. Honi dagokionez, gobernuak onartu duen testua oso motz geratzen da. Halere, erabilgarria da CCOOek, UGTk, CEOEk eta Espainiako Gobernuak erabaki dituzten murrizketak zein larriak diren konturatzeko.

Gastuaren murrizketa itzela

Espainiako gobernuaren balioespenaren arabera, erreformarekin gastua zeharo murriztuko da. Erreforma indarrean mailaka sartuko denez, bere eraginak areago 2020tik aurrera somatuko dira. Txosten Ekonomikoaren arabera, erreformaren ondorioz 2015ean gastua BPGaren %0,1 gutxituko da. Gastuaren jaitsiera 2020an %0,3koa izango da; 2030ean, %1,4koa; 2040an, %2,8koa, eta 2050ean, %3,5koa. Gutxi gorabehera zertaz ari garen jabetzeko, BPGaren %3,5 egungo pentsioetako gastuaren %40 inguru da.

ERREFORMAK ERAGINDAKO GUZTIRAKO AURREZKIA (BPGaren %)

Urtea	Guztira
2015	0,1
2020	0,3
2030	1,4
2040	2,8
2050	3,5
2060	3,6

Erretiro adinaren atzerapena

Erretiro adina atzeratzeko erabakia arrazoitzeko ideiarik erabilienetakoa da jendea adin hori baino lehenago erretiratzen dela. Txosten Ekonomikoan jasotako datuek adierazten dute espainiar estatuan 2010ean batez beste erretiro adina 63,84 urte zela, 63,43 erregimen orokorrean, hots, 65 urtetik aski gertu.

Gainera, datuek adierazten dute adin erreala atzeratzen ari dela. Azken sei urteotan gora egin du (0,4 urte sistema osoan eta urte erdi erregimen orokorrean). Gorakada hau azken ekitaldietan ere gertatu da, krisi ekonomikoa pairatzen ari garen urteotan.

BATEZ BESTEKO ERRETIRO ADINA 2004-2010

KLASEAK	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
ERREGIMEN OROKORRA	62,87	63,06	62,92	63,06	63,16	63,26	63,43
SISTEMA OSOA	63,45	63,61	63,47	63,57	63,65	63,73	63,84

Erretiro adina 65 urtetik 67ra atzeratzeak gastua asko murrizten du. Gizarte Segurantzaren arabera, 65 urterekin erretiro-pentsio bat dutenen bizi-itxaropena 20,01 urtekoa da. Erretiroa bi urtez atzeratzeak, beraz, pentsioetako gastua %10 gutxitzea esan nahi du.

38,5 urtetik gora kotizatu dutenentzat erretiro adina 65 urtetan mantentzen da. Txosten Ekonomikoak ez du erabaki honi buruzko datu zehatzik eskaintzen, baina zenbait xehetasun interesgarri ematen du:

- Erretiro-pentsioak dituztenen %60,12ak gutxienez 35 urtez kotizatu du. Horrek esan nahi du dagoeneko %40a ez dela kotizazioaldi horretara iritsi. Ondorengo koadroko datuak kontutan izanik, kalkula daiteke

biztanleen beste %8 batek 35 eta 38,5 urte bitartean kotizatu duela. Hots, jendearen %50ak ez du erreformak erretiratzeko eskatzen dituen 38,5 urtez kotizatu.

- Ekonomia eta Hazienda Ministerioak bere webgunean ingelesez ageri den txosten batean dioenez, "egun erretirutzen direnen %50 inguruk 38,5 urtez kotizatu du, baina aldaketa sozioekonomikoekin espero daiteke etorkizunean portzentajea jaitسي egingo dela". Beraz, prekarietatea, langabezia edo lanaldi partzialeko enplegua hedatu ahala, langile gehienek 65 urte dutenean ez dute 38,5 urtez kotizatu ahal izango.
- Neurri honekin emakume gehienak 67 urterekin erretiratzera behartzen dituzte. Oso gutxitan agertzen dira hain nabarmen politika neoliberalak emakumeei eragiten dizkieten kalteak. Zehazki, erretiro pentsioa duten gizonazkoen %75,94ak kotizatu du 35 urtez, baina aldiz emakumeen %24,51 besterik ez dago egoera horretan. Bi kasuetan, 38,5 urteko kotizazio aldia dutenen portzentajea txikiagoa da, baina ez dakigu zenbatekoa den.

**2011KO URTARRILEAN INДАРREAN DAUDEN ERRETIRO-PENTSIOAK,
KOTIZATUTAKO URTEEN ARABERA**

BANAKETA PORTZENTUALA

KOTIZAZIO URTEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<= 15	17,68	2,09	6,88
16-20	21,70	2,70	8,54
21-25	15,96	4,12	7,76
26-30	12,36	6,69	8,44
31-34	7,78	8,47	8,26
>= 35	24,51	75,94	60,12
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00

Erretiratzeko adina atzeratzeak gastua asko murrizten du. Txosten Ekonomikoak dioenez, neurri honen ondorioz gastua 2040an BPGaren %1 adina jaitziko da (zinez, kopuru hau lortzeko aldaketa horri gehitu egin behar zaizkio erretiro aurreratuan zein minimo-osagarrietan egindako aldaketak, baita erretiro partzialak eta errelebo-kontratuak ekarriko dituzten diru-sarrerak ere).

ERRETIRO ADINAREN ATZERAPENAK ERAGINDAKO AURREZKIA (BPGaren %)

Urtea	Erretiro adinaren atzerapena (*)
2015	0,1
2020	0,2
2030	0,8
2040	1,0
2050	1,0
2060	0,9

Aldaketa oinarri arautzailean

Erreformarekin pentsioa kalkulatzeko oinarritzat 25 urte hartuko dira, eta ez 15, orain arte bezala. Txosten Ekonomikoan jasotako balioespenaren arabera, 15 urtetik 20ra igarotzearekin guztirako pentsioetan %5,38eko murrizketa lortzen dute.

Txostenak atal honetan ez du zehazten 25 urtera igarotzeak dakarren murrizketa; noski, aipatutako %5,38a baino handiagoa izango da. Zenbait ikertzaile eta lehenagoko azterketen arabera, %10 litzateke.

OINARRI ARAUTZAILEA ALDATZEAK ERAGINDAKO MURRIZKETA

Oinarri arautzailea	% murrizketa GUZTIRAKO pentsioetan
15 urtetik 16ra	- 2,43
15 urtetik 17ra	- 2,95
15 urtetik 18ra	- 3,70
15 urtetik 19ra	- 4,50
15 urtetik 20ra	- 5,38

%10 hori Txostena irakurrita zeharka deduzi daiteke, honek esaten baitu neurri honekin aurrezten dena 2050ean BPGaren %1 izan daitekeela; kopuru hau erretiratzeko adinaren atzerapenari buruz arestian aipatutakoaren antzekoa da.

OINARRI ARAUTZAILEA ALDATZEAK ERAGINDAKO AURREZKIA (BPGaren %)

Urtea	Oinarri arautzailea (1)
2015	0,0
2020	0,1
2030	0,4
2040	0,8
2050	1,0
2060	1,0

Kotizatu gabeko aldien estaldura

Kalkulua egiteko epea 15etik 25 urtera luzatzearen ondorioz, kotizatu gabeko aldiak ere luzeagoak izango dira, eta honek jende gehiagori egingo dio kalte.

Honi buruz Txosten Ekonomikoak ematen duen informazioa ere ez da nahikoa, baina bai argigarria: jende gehiago izango da kaltearen, eta gai honetan ere, gehienbat emakumeak:

- Erregimen orokorreko langileen %68,1ek ez dauka azken 15 urteetan kotizatu gabeko aldirik. Baina portzentaje hori %50era jaisten da aintzat 20 urte hartuz gero. 25 urteko epeari buruzko daturik ez da aipatzen.
- Emakumeen %52,7ak ez du kotizatu gabeko tarterik azken 15 urteetan. Baina portzentajea %34,1eraino jaisten da 20 urteko epea aintzat hartuz gero.
- Epealdia 15etik 20 urtera eramatearekin, 24 hilabetetik gora kotizatu gabeko aldiak dituen jendearen portzentajea (hots, erreforma honek kaltetutakoen ehunekoa) igo egiten da %20,6tik %31,8ra. Emakumeen artean, berriz, %35,8tik %49,7ra.

Erregimen orokorra. Kotizatu gabeko aldien kopuruaren arabera banaketa

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Azken 15 urteak	Azken 20 urteak	Azken 15 urteak	Azken 20 urteak	Azken 15 urteak	Azken 20 urteak
Hutsarterik gabeak	%52,6	%34,2	%76,8	%59,3	%68,1	%50,0
24 hilabetera arte	%11,6	%16,1	%11,2	%19,4	%11,3	%18,2
25 hilabete edo gehiago	%35,8	%49,7	%12,0	%21,3	%20,6	%31,8
	%100	%100	%100	%100	%100,0	%100,0

Oinarri arautzailearen gaineko portzentajearen aldaketa, kotizatutako urteen arabera

Pentsioaren %100era iristeko 35 urte ordeztu behar dira 37 eskatzeak eta 15 eta 37 urte bitartean kotizatu duen orori pentsioa gutxitzeak ere Gizarte Segurantzarentzako gastu txikiagoa ekarriko du.

Zehazki, Txosten Ekonomikoak dioenez BPGaren %0,3 aurreztuko da 2040tik aurrera. Gastuaren jaitsiera nabarmena da hau, baina bera eragingo duen erabakiak ez du oihartzun handirik izan iritzi publikoan.

URTE BAKOITZARI ESLEITUTAKO PORTZENTAJEA ALDATZEAK ERAGINDAKO AURREZKIA (BPG %)

Urtea	Oinarri arautzailearen gaineko %
2015	0,0
2020	0,0
2030	0,1
2040	0,3
2050	0,3
2060	0,3

Iraunkortasun faktorea

Iraunkortasun Faktoreak etorkizunean eragin handiak izango ditu. 2027tik aurrera lege-aldaketa automatikoak egingo dira. Adibidez, erretiro adina, egungo aurreikuspenak mantenduz gero, berriro atzeratuko da, 69 urtetaraino.

Txosteneko datuek hori adierazten dute. Batetik, aztertutako epealdian 65 urte dituztenen bizi-itxaropena 3 urte luzatuko dela jasotzen da.

BIZI-ITXAROPENAREN BILAKAERA

GIZARTE-SEGURANTZAKO PENTSIODUNEN BIZI-ITXAROPENA	2008	2050	2060	2008-2050 epeko bizi-itxaropenaren igoera	2008-2060 epeko bizi-itxaropenaren igoera
ERRETIROA					
Bizi-itxaropena 65 urterekin	20,01	22,82	23,11	2,8	3,1
Bizi-itxaropena 80 urterekin	8,91	10,39	10,55	1,5	1,6

Halaber, Txostenak dioenez konpromiso honen ondorioz aurreztuko dena erretiro adina 67 urtetaraino atzeratzearen parekoa izango da.

Zehazki, Iraunkortasun Faktore honekin 2050ean BPGaren %1 aurreztuko da. Honekiko ere Txostena osatu gabea da, ez baitu zehazten aurrezki hori kalkulatzeko oinarritzat zein neurri hartu duten.

Argi dago Itunaren sinatzaileak nabarmen ez uztearren ez dela behar bezala azaltzen 2027tik aurrera erretiro adina areago atzeratuko dutela eta murrizketa gehiago erabakiko dituztela. Gobernuak dagoeneko horretarako asmoa dauka, eta horiei buruzko kalkulu ekonomikoak eginda dauzka, baina ez ditu plazaratu nahi, sinatzaileentzat Itunaren salmenta hain zaila izan ez dadin.

IRAUNKORTASUN FAKTOREAK ERAGINDAKO AURREZKIA (BPG %)

Urtea	Iraunkortasun Faktorea
2015	0,0
2020	0,0
2030	0,0
2040	0,5
2050	1,0
2060	1,2

III- ONDORIOAK

1. Pentsioen murrizketa larria dugu hau. Espainiako gobernuak aurkeztu duen lege-aurreproiektuak Itun Sozial eta Ekonomikoa (ISE) garatzen du, baina lehenago ezagunak ziren neurri kaltegarriei beste batzuk gaineratzen dizkie (erretiro aurreratuan edota kotizaziopeko pentsioen minimo-osagarrietan murrizketa gehiago ezarrita).

2. Txosten Ekonomikotik honako ondorioak atera daitezke:

- Erreformak eragindako gastu murrizketa itzela da. Zehazki, balioespen baten arabera 2050erako BPGaren %3,5 "aurreztuko" da (2010eko 37.000 milioi adina, hots, ekitaldi horretako pentsio-gastuaren ia %40).
- Gastua murrizteko bide nagusiak hauek dira: erretiro adina 67 urtera atzeratzea (biztanleen zati handiena adin horrekin erretiratzera behartuta egongo da), pentsioa kalkulatzeko azken 25 urteak aintzat hartzea, eta 'iraunkortasun faktore' izena eman dieten etorkizuneko murrizketak. Neurriotako bakoitzak BPGaren %1 aurrezteak dakar.
- Erreforma honek kolektiborik ahulenei egiten die kalte. Txostenak islatzen du erreformaren eraginik txarrena emakumeek pairatuko dutela, kotizazio aldi laburragoak eta kotizatu gabeko tarte gehiago dituztelako.
- Txosten Ekonomikoak ez du erreformaren puntu nagusi batzuren balioespenik egiten. Adibidez, oinarri arautzailea kalkulatzeko 15 urte

ordez 25 aintzat hartzeari buruzkoa, edota Iraunkortasun Faktorearen balioespen ekonomikoa egiteko kontutan izan diren hipotesien azalpena.

- CCOOek eta UGTk besterik sinetsarazi nahi badute ere, Txosten Ekonomikoak frogatzen du erreformak eragingo duen aurrezkia ia-ia gobernuak duela urtebete iragarritako bera dela. Honek esan nahi du CCOOek eta UGTk sinatutako itunarekin gobernuaren proposamena onartu zutela –honela murritzketak onesten zituztelarik–, xehetasun txiki batzuk gorabehera. Areago, kontutan izanik Txostenak aztertzen dituen neurriak azkenean erabakitakoak baino arinagoak direla, esan daiteke gai batzutan, esaterako kalkulurako 25 urte ezartzean eta Iraunkortasun Faktorean gobernuaren hasieran espero zena baino urrunago iritsi dela.

3. Herritarren %70etik gora dago erreformaren kontra, irudi kanpaina batekin benetan onartu dena desitxuratu nahi den arren.